



IKER  
GAZTE  
NAZIOARTEKO  
IKERKETA EUSKARAZ

## IV. IKERGAZTE NAZIOARTEKO IKERKETA EUSKARAZ

2021eko ekainaren 9, 10 eta 11a  
Gasteiz, Euskal Herria

ANTOLATZAILEA:  
Udako Euskal Unibertsitatea (UEU)

### GIZARTE ZIENTZIAK ETA ZUZENBIDEA

**Estatuaren eta Konstituzio-  
Zuzenbidearen konkista  
neoliberalak: hausnarketa  
kontrahegemoniko bat**

*Ander Loyola Sergio*

307-314 or.

<https://dx.doi.org/10.26876/ikergazte.iv.02.38>



## **Estatuaren eta Konstituzio-Zuzenbidearen konkista neoliberalak: hausnarketa kontrahegemoniko bat**

Loyola Sergio, A.<sup>1</sup>

*Nafarroako Unibertsitate Publikoko (NUP) eta Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) ikaslea  
[loyolazizur@gmail.com](mailto:loyolazizur@gmail.com)*

### **Laburpena**

Azken hamarkadotan garatu den paradigma neoliberalak hegemoniko gisa aldarrikatu da eta giza bizitzaren esparru guztiak gainezkatu ditu; tartean, Estatu eta konstituzio-zuzenbidearen kategorien gain eraldaketa sakonak eraginez. Marko analitiko zabal batetik abiatuz, gaiaren hiru kategoria nagusi ditugun neoliberalismoa, Estatu eta konstituzio-zuzenbidearen definizio alternatibo bat eskainiko dugu. Definizio horiek zentzu bikoitzean jardutera gaitzen gaituzte: lehenik, neoliberalismoak Estatu eta Konstituzioaren gain eragindako transformazio horiek prozesu desozializatzaile, desdemokratizatzaile eta teknokratizatzaile gisa identifikatzen; gerora, konstituzio-zuzenbidea Estatu sozial eta demokratikoaren hustearen aurrean balazta gisa erabili daitekeen tresna moduan irudiztatzen.

Hitz gakoak: Neoliberalismoa, Estatu, Konstituzio-zuzenbidea, Eraldatzea, Kontrahegemonia.

### **Abstract**

*In recent decades, the neoliberal paradigm has been proclaimed as hegemonic and has inundated each and every space of human life, promoting, in turn, profound changes in the State and constitutional law. Starting from a broad theoretical framework, we could offer an alternative definition of the three categories on which our work pivots: Neoliberalism, the State and Law. These definitions allow us to discourse in a double sense: not just to understand that neoliberalism has transformed both the State and Constitutional law in a desocializing, de-democratizing and technocratizing way; but to conceive of Constitutional law as the brake on an emptying of the social and democratic elements of the State.*

*Keywords: Neoliberalism, State, Constitutional Law, Transformation, Counterhegemony.*

## **1. Sarrera eta motibazioa**

Betiko leloa dugu, neoliberalismoaren eskutik, Estatuak “Estatu minimoaren” kontzeptuari erantzuten diola, hots, Estatuaren bertsio neoliberalaren arabera, Estatuak esku-hartzerik ezan eta desarautzean oinarrituko dela, gutxika Estatu bera —bere egiturak, funtzioak, helburuak, bitartekoak— desagertaraziz. Orobat, ikuspegi bertsutik, Estatu garaikideari buruz hausnartzeko orduan topiko bat da neoliberalismoak Estatu krisi organiko batean murgildu duenaz aritzea.

Egia da neoliberalismoa, bere burua hegemonikotzat aldarrikatuta, giza bizitzaren esparru guztiak gainezkatu dituen paradigma gisa proiektatu dela, bidenabar, Estatuaren eta konstituzio-zuzenbidearen konkistara oldartuz. Ordea, neoliberalismoaren ideologoen diotenaren kontra, iraultza neoliberalak ez du gizarte-bizitzaren desestatizazioa bilatzen eta ez du konstituzio-zuzenbidearekin bukatu nahi. Aitzitik, Estatuaren xedeen eta konstituzio-zuzenbidearen berregituraketa eraman du, kategoriatan bere proiektuaren interes propioen alde jarritz; horrela, Estatuaren funtzio sozialak minimizatu ez ezik, gizarte zibilaren demokrazia-eskaeren aurrean, hertsatze-funtzioak indartu ditu.

Horregatik, Estatuaren eta konstituzionalismoaren krisi gisa izendatu dena, ez da Estatuak eta Konstituzioak kategoriatan gisa jasan duten krisi moduan ulertu behar, Estatu transformatu eta bere interesen mesedetan kokatzearren, elementu konstituzional sozial eta demokratikoen pairatu duten eraso gisa baizik. Hain zuzen, Estatuaren eta konstituzio-zuzenbidearen erakundeak desegin ordez, euren izaera sozial eta demokratikoa birformulatu nahi direla ulertzeak, ahalbidetu egiten gaitu kategoriok borrokaleku gisa irudikatzen. Neoliberalismoak konstituzio-krisi egoera batean murgildu bagaitu, ez ditugu Estatu eta Konstituzioaren kategoriak akademikoki baztertu edo politikoki mespretxatu behar; alderantziz, beharrezkoa izango da krisi egoera horretaz baliatuta prozesu konstituziogileak aktibatzea edo, bederen, arrakala horretan sakontzea. Betiere, konstituzio-zuzenbide eta Estatuaren kategoriak eraso neoliberalari aurre egiteko balazta eraginkor eta alde batera utzi ezinezko gudu-zelai direnaren konbentzimendu partekatutik.

---

1 NUP-en Zuzenbidean graduatua eta EHU-n Abokatutzan masterra

## 2. Arloko egoera eta ikerketaren helburuak

Gaia mamitsua bezain interesgarria izanik, orriak eta orriak idatzi dira neoliberalismoaren, Estatuaren eta zuzenbidearen elkarreraginaren inguruan, diziplina eta esparru zientifiko ezberdinetatik. Alabaina, akademia juridikoak —salbuespenak albuespen— lan honek biltzen dituen ikerketa-objektuak modu isolatuan aztertu dituela hauteman daiteke, proiektu neoliberalak XXI. mendean zehar indarrez aitzina egin duen arren.

Zentzu honetan, globalizazio neoliberalaren testuinguruak arazo konstituzionalei heltzeko modu espezifiko bati ateak ireki dizkion aldetik, konstituzio-zuzenbideak bizi dituen eraldaketei heltzeko konstituzionalismoaren oinarriko kategoriak diren horien jadanekotasuna berrikusi eta, kasuak kasu, birkontzeptualizatzeko beharra dagoela ulertzen dugu. Ezagutza juridikoa ezin da legea aztertzea eta auzitegiek ebazitako kasu partikularrak ezagutzera mugatu; aitzitik, konstituzionalista arduratsu orok boterearen eraldaketa, subiranotasuna edo demokraziaren kategorien analisi eguneratuak gauzatu eta Konstituzioak Estatu materialki artikulatzeko duen gaitasuna kontuan hartu beharko luke.

Hala, konbentziturik gaude dimentsio juridikoa ez dela nahikoa, berez, Konstituzioak pairatutako aldaketak behar bezala ulertzeko; aldez, neoliberalismoa, Estatu eta zuzenbidearen arteko elkarreraginari heltzearen, alde aurretik, kategoria bakoitzari diziplinarteko definizio bat eskaini beharko zaio. Ezingo da neoliberalismoaren eraginaren analisi juridiko on bat egin Estatuaren eta, bidenabar, konstituzio-zuzenbidearen kontzeptualizazio on bat egin gabe. Horregatik, zuzenbide positiboa egitura formal huts gisa hartzen duen metodoa eta perspektiba zabalduz, arlo juridiko-konstituzionalean aldaketak sustatzen dituen fenomeno balarazio zabalagoetara iritsi nahi gara. Praktikatu nahi den metodologiak aukera ematen digu juridiko-ez juridiko dikotomia alde batera uzteko eta, ondorioz, errealitate konstituzionala ikuspegi formal hutsaren bidez azaldu ezin diren prozesu politiko, sozial eta juridikoen arteko erreakzioen emaitza dela ulertzeko, alegia, harreman konplexu horren muinera hurbiltzeko.

Bada, behin arloko egoeraren gabeziak mahaigaineratuta, lanaren helburuak aurrera ditzakegu:

- 1) Marko teoriko gisa balia ditzakegun neoliberalismoa, Estatu eta konstituzio-zuzenbidearen definizio integralagoak ematea.
- 2) Neoliberalismoak Estatu eta zuzenbidearen gain eragindako eraldaketen izaera desozializatzaile, desdemokratizatzaile, teknokratizatzaile eta punitibistak ikertzea.
- 3) Konstituzio-zuzenbidea neoliberalismoaren aurkako bide kontrahegemoniko gisa ulertzea.

## 3. Ikerketaren muina

### 3.1. Marko teorikoa: neoliberalismo, Estatu (sozial) eta konstituzio-zuzenbidearen kategoriekiko hurbilpen artikulatu eta integrala

Juridikoa—ez juridikoa dikotomiatik ihes egiten duen kategoria ezberdinekiko hurbilpen bat osatzeko, oso erabilgarri zaigu Bob Jessopek darabilen Estatuaren teoriaren baitako ikuspegi estrategiko-erlazionalaren marko analitikoa. Jessopek Estatu gizartearen gainetik edo gizartetik kanpo dagoela berrestera eta naturalizatzea jo duten ikuspegi teorikoetatik aldentu eta Estatu gizartean txertatuta dauden eta beste ordena instituzional eta praktika sozial batzuekin lotuta dauden erakunde eta praktiken multzo gisa definitzen du. Historikoki garatu izan diren Estatuaren teorizazio ezberdinen aurka —Estatu klase burgesaren interesak babesten dituen administrazio-kontseilua, gizartearen pluralismoaren isla hutsa, bizitza propioa duen erakunde autonomoa edo klase agintariak erabat zehaztutako tresna da— (Monedero, 2018), Estatu “dena sozialean” birtxertatu nahi du, gizartearekiko duen autonomia erlatiboa azpimarratuz, eta Estatu modernoaren azterketan itxuraz bereiziak eta autoerreferenteak diren bi sistema instituzionalak —Estatu eta merkaturak— artikulatzeko irtenbidea eskainiz (Sandoval Ballesteros, 2004: 228). Hala, autoreak berak erraztutako definizioari jarraiki, Estatu gizartean txertatua eta sozialki arautua dagoen, modu estrategikoan hautatua den eta komunitate politiko batentzat kolektiboki lotesleak diren erabakiak hartzearen inguruan antolatzen diren erakunde, instituzio, gizarte-indar eta jardueren multzo gisa definituko dugu (Jessop, 2008: 7).

Definizio horrek ondokoak aditzera ematen du: a) egituraren eta agenteen arteko dialektika bat dago, eta Estatuak, selektibitate estrategikoa dela eta, Estatu-forma, indar sozial, estrategia edota interes batzuk beste batzuen gainera pribilegiatuko baditu ere, Estatuaren boterearen adierazpena ekintza politikoan parte hartzen duten indar sozialen oreka aldakorren mende egongo da (Jessop, 1999: 15); b) egiturazko akoplamendua kontzeptuaren bidez, egitura ekonomikoaren eta politikoaren arteko elkarrekiko mendekotasuna iradokitzen da, bi egituretako edozeinen garapenak bestearen bilakaerari eragingo diolarik (Sandoval Ballesteros, 2004: 218); c) Estatu ezin da esparru neutraltzat hartu, ezta harreman sozialen etengabeko fluxuaren gainera dagoen erakundetzat ere, dinamismo sozialaren eta negoziazio politikoaren eremutzat baizik (Jessop, 2007: 5). Ondorioak erradikalak dira: Estatu ez dago politikaren eta ekonomiaren arteko etengabeko tentsioaren eremutik kanpo eta Estatu-aparatua eta bere esku hartzeko tresnak ez dira neutralak, jokoan dauden interesen arteko gatazka eremu bat baizik (Jessop, 2017). Areago, edozein proiektu politiko beti izan daiteke estrategia politiko egokien bidez Estatu inhibitzen edo indartzen duten eraldaketen subjektu (Jessop, 2014: 8-9).

Ikuspegi horretatik tiraka, Estatu “harreman sozial” bat baldin bada, Konstituzioak gizarte-dinamikak, klase-aliantzak, estatu-proiektuak eta sistema politiko osoaren barruko borroken garapena, oreka eta emaitza islatuko du. Konstituzioan gizarte jakin baten iraganeko bataila politikoak eta botere-harremanak “kondentsatuak” eta “gauzatuak” izango dira (Jessop, 2007: 52). Konstituzioa ez da izango gizarte sektore menderatzaileen interesa islatzen duen eta haien boterearen bermerako balio duen tresna hutsa, Konstituzioa ez da bakarrik gizarte batean nagusi diren balore batzuen isla izango, Konstituzioa ez da klase agintariak balio dezakeen tresna neutral hutsa, ezta tresna autonomo bat ere. Aitzitik, Konstituzioak Estatu konkretu baten gatazka historikoen garapena, indar-korrelazioen irudikapena eta, korrelatiboki, gizarte horren baitan dauden sektoreen interesen talkaren, borroken, garaipen eta porrot historikoen irudikapen juridikoa islatuko du, bidenabar, borroka eremu gisa ere jardungo duena (Monedero, 2018).

Estatu eta Konstituzioaren inguruan eman dugun definizioari so, Estatu soziala bere jaiotza inguratu duten borroka eta indar-korrelazio horien fruitu izango da, ezinbestean (Poulantzas, 1970: 78). Bada, pintzelkada labur bat ematearren, jaiotza hau zentzu ezberdinetan ulertu da: a) Bigarren Mundu Gerraren ostean, kapital-metaketa suspertzeko kapitalismoaren berregituraketa eta ekonomiaren nazioartekotze klabeetan (Soriano, 2016: 447); b) Kontraesan sozialen tentsioak arintzeko, enpresa kapitalista handien eta sindikatuen arteko “klase konpromezu” edo “paktu sozial” gisa (Offe, 1990: 135; Hobsbawm, 1998: 270); edota c) Sobietar Batasunaren komunismoaren hedapenaren aurreko beldurrarekiko erantzun moduan (Petras, 2001: 22). Konstituzio-zuzenbidearen alorrean, gatazka politiko-sozialak edo indar-korrelazioak Konstituzioan sartzeko daukan bokaziotik abiatuta, Estatu sozialaren jaiotza, sistema jasangarri bihurtzekotan, Kapital-Lana binomioaren elementuon arteko talka konstituzionalizatu eta bertan gatazka xurgatzen duen eredutzat ulertu da (De Cabo, 2010: 75).

Hain zuzen ere, izaera soziala eta demokratikoa daukan Estatu forma konkretu honekin bukatzeko prozesua abiaraziko du neoliberalismoaren proiektu politikoak. Neoliberalismoak ez du ez bizitza sozialaren desestatizazioa bilatzen, ezta konstituzio-zuzenbidearen amaiera ere, Estatuaren eta konstituzio-zuzenbidearen xedearen berregituraketa eramango du, funtzio sozialak minimizatu eta demokrazia-eskaeren aurrean, hertsatze-funtzioak indartuz (Ruiz, 2016: 9). Edonola ere, Estatu sozialaren jaiotza kapitalismoaren berregituratze, klaseen arteko konpromiso, edota komunismoaren mamuaren beldurraren erantzun gisa kokatu badugu, neoliberalismoaren sorkuntza termino berdinetan irakurri beharko dugu, alegia, aurretiazko konstituzionalismo sozialaren oinarrien iraulketan (Petras, 2001: 5).

Hala, ideologia neoliberalak sustrai ideologikoak pentsalari liberal klasikoetan bota baditzake ere, egitismo politiko gisa jasotzen duen proiektua 70. hamarkada bukaeran eta 80. hamarkada hasieran ematen da, Thatcher eta Reagan euren Estatu-tako gobernuetara heldu ahala. 1973ko petrolioaren krisialdi ekonomikoa abiapuntu, ezkertiarren ahultasunaz bailatuko da edota ezkertiar indar sozialekin bukatuko du modu gordinean, plano ezberdinetan bere proiektua garatzeko. Gerora, Sobietar Batasunaren superpotentziaren gainbeherarekin, neoliberalismoa ideologia garaile eta hegemoniko moduan egituratuko da (López, 2017: 177; Petras, 2012: 8).

Alabaina, neoliberalismoa ez dugu politiken multzo bat edo ekonomia antolatzeko modu huts bat soilik, Estatuaren, gizartearen eta merkatuaren arteko harremanak birdefinituz, merkatuaren eragin esparrua handitu eta Estatuaren zein herri mugimendu ezberdinen gaitasunak kaltetu nahi dituen paradigma antropologiko, sozial, politiko integral bat baizik (Sandel, 2012). Hartara, neoliberalismoak giza bizitzaren esparru guztiak —Estatua eta konstituzio-zuzenbidea barne— gainezkatu dituen iraultza suposatu du, eta sozialismo errealearen gainbeheraren momentutik, eredu hegemoniko gisa aldarrikatu da, ideologiaren arteko gatazkaren ustezko amaieraz geroztik, gizarte kapitalista garaikidea gaindiezina den eredu bezala irudikatuz (Bell et al., 1993). Ikusiko dugunez, bere tesiak kontrajartzeko gai den beste aukerarik ez dagoela sinetsita, Fukuyamak aurreratutako “historiaren amaiera” edo Thatcherrek batailatutako *there is no alternative* leloa Konstituzioaren eremura eramanez nahiko du; teknika politikaren gain gailenduz, konstituzio-zuzenbidearen muina den dialektikaren ideiarekin bukatzeko asmoz.

### 3.2. Neoliberalismoaren hazkundera eta konstituzionalismoaren krisia

Esan bezala, neoliberalismoarekin Estatuaren eta konstituzioaren kategoriek ez dute inolako atzerapenik jasan, “Estatu-merkatu” gisa bataiatu duten forma politikoaren jaiotzarekin ebatzi den birformulazio bat baizik. Birdefinizio hori Estatuak eta Konstituzioak jasan duten norabide bikoitzeko hustean hezurramitu da: demokraziaren des-susstantziazioan eta konstituzionalismo sozialaren tradizioaren eskubide sozialen desgaitzean (Monereo, 2016: 928). Estatu soziala beste elementu batzuekin lotuta —Estatu demokratikoa, kasu— agertzen den heinean, Estatu sozialaren krisiak beste elementu horiek jartzen ditu arriskuan. Privatizazioek arlo publikoa pribatuaren alde mendekotzeko, agerian uzten du Estatu sozialaren krisiak Estatu demokratikoan izan duen eragina: gehiengoaren kalterako emandako aldatetek, demokrazia, gizarte-geruza guztien gobernu inklusibo gisa, kolokan jartzea eragin dute (Soriano, 2016: 448).

Horretarako, neoliberalismoak arau-ekoizpenaren estilo berezi bat garatu du, izaera publiko eta esku-hartzaileko arauen murrizketa, sektore pribatuaren araugintza-autonomiaren sendotzea eta, bidenabar, Estatuaren hertsatze funtzioaren indartzea uztartzen dituen. Neoliberalismoak dakarren desarautzea, beraz, ez da anomiarekin identifikatzen: egitura sozial eta ekonomikoak eragiteko neurri politikoak hartzen dituen legeria interbentzionista bat ordezkatu nahi du, eragile ekonomikoetatik datozen arauetara tolerantzia den, merkatu askeko joko-arauen indarraldia bermatzen duen eta, bereziki, lehia askea edo subjektu ekonomiko pribatuaren arteko aukeraberdintasuna goraiatu nahi duen legeria abstentzionista batekin (López, 2017: 179).

Zinez, Konstituzioa ordenamenduaren buru izateko eta Estatuak botereak lotzeko ezintasun gisa adieraziko den deskonstituzionalizazio-prozesu oso bat gauzatzen ari da, Konstituzioaren araugintzaren eta Estatu sozialaren arauen preskriptibitatearen galera moduan ematen dena (Maestro Buelga, 2017: 771). Ikusiko dugunez, teknokratizazioak dakartzan gatazkaren ukapena izango da desdemokratizazio eta desozializazio prozesu horiek aurrera eramateko giltzarria.

#### Desozializazio prozesuak

Gerraosteko indar-korrelazioaren isla, Konstituzio sozialek oinarritzko beharrak asetzeko eta, horrekin batera, norberaren askatasuna hedatzeko ezinbestekoak diren eskubide sozial batzuk bermatu zituzten, betiere, kapitalismoa eredu gaindiezina izango dela adostuta (Pisarello, 2012: 58). Haatik, desjabetze neoliberalaren eskutik, elite ekonomiko-finantziarioen klase boterea berrezartzearen makropolitika jarri da abian: publikotasunaren desjabetzea, ondare kolektibo edo komunaren birjabetze eta metaketa pribatuaren, zein eskubide sozialen eta zerbitzu publikoen privatizazio eta birmerkatuzkoaren bidez eman da (Monereo, 2016: 932-933).

Konstituzioaren alor sozialean, ondasun eta zerbitzu publikoak merkantilizatu eta Estatuaren rol birbanatzaileak desgaitzeko hautua egiteko, neoliberalismoak ordenamendu juridikoko partzela osoak iragazi ditu, aginduzko zuzenbidetik xedapen-zuzenbide soilera aldatzeko proposamena eginez, paradigmatikoki, lan-zuzenbidearen esparruan (López, 2017: 178-180). Sakonki aztertu ezin badugu ere, Estatu eta Konstituzioaren desozializazio prozesuan lan-merkatuaren erreformak garrantzia berezia izango du, Estatu sozialaren eskutik aurrenekoz Lana konstituzionalizatu egiten bazen, erreformak Lana sistematik kanporatu eta gatazka merkantilizatuko duelako (Maestro Buelga, 2017: 794-797; Cámara, 2016: 550). Orobat, Konstituzio politiko eta sozioekonomiko

nazionalen mutazio infrakonstituzional- tazituetatik at, neutralizazio-prozesu paradigmatico gisa agertzen zaigu KE 135. artikularen erreforma; merkatuen interesak berariaz Estatu sozialaren betetze-premiei gainjarriz, KE 1.1. artikuluan ezartzen den Estatu sozialaren arautzea formalki eta materialki urratuko dituen ekimen konstituziogabetzaile nagusizat duguna (Soriano, 2016: 450).

Laburbilduz, liberalizazio- eta pribatizazio-politikek ekonomiaren sozializazio publikorako tresnak desaktibatu eta neutralizatu dituzte, Estatu soziala desartikulatu eta bere legitimitatea suntsituz (Martínez eta Ferrer, 2016: 582). Ondorioz, Konstituzioak bere arau-indarra galtzen du, konstituzionalismo soziala husten duelako, eskubide sozialak devaluatu eta euren konstituzio-dimentsioa ezabatzen duelako (Maestro Buelga, 2017: 797).

### **Desdemokratizazio prozesuak**

Konstituzionalismo sozialaren elementu bermatzaileenak minimizatzeak, printzipio demokratikoa desitxuratzeko bide ere eman du (Pisarello, 2012: 62). Estatu soziala husteko prozesu batek, jakina, ez dio boterearen kontrolari eta diziplinari laguntzen; aitzitik, Estatuaren eta gizartearen oligarkizazioaren eta demokrazia politiko eta sozialaren existentzia- eta biziraupen-baldintzen degradazio nabarmenaren lepotik baino ezin da jazo (Pisarello, 2001: 90).

Neoliberalismoaren ideologoen demokrazien gobernagarritasun-krisiaren arrazoi nagusietako bat parte-hartze politikoaren “gehiegizko” hedapen demokratikoan kokatzen dute, gobernuengan gainkarga sortu, gatazka sozialak areagotu eta sistemaren jarraipena arriskuan jartzen duelakoan. Hala, demokrazia neoliberaletan erabakiak hartzerakoan herritarren parte-hartze gaitasuna mugatzera eta desmobilizazioa sortzera bideratutako politikak eta mekanismo juridikoak ezartzeko beharra ikusten da (Monedero, 2012: 300-306; Pisarello, 2012: 63). Helburu hori lortzeko, neoliberalismoaren paradigmak parlamentuak organo aditu eta tekniko bihurtzen ditu, gizarte-erregulaziorako ahalmenak ahuldu ez ezik, euren izaera ideologikoa suntsituz. Praktikan, parlamentua lege- eta kontrol- funtzioetatik hustu egiten da, botere exekutiboa gailendu eta kontrol politiko-elektoralekiko uzkur diren, ustez independenteak diren erakundeen (Banku Zentralak) eta erabakiak hartzeko legezkoak ez diren beste zentro pribatu batzuen (zorria kalifikatzeko agentziak) mesedetan erreformak abiatuz (Cámara, 2016: 553).

Beraz, proiektu neoliberalak, erreforma desozializatzaileak sustatzeko, espazio arautzaile demokratikoetatik ihes egin eta bere jarduna inolako eztabaidarik gabe ematearren, informalak diren eta askotan nazioz gaundiko eta nazioarteko erakundeen bidez jarduten duten esparruak lehenetsiko ditu, argiki antidemokratikoak badira ere (Arjona, 2020: 36). Egungo panorama politiko-konstituzionalean, herria eta nazioa ez diren botere faktiko subirano berriak ditugu nagusi, erantzukizun politiko-juridikorik gabe konstituzio-testuetan erreforma esplizituak zein isilbidezko mutazioak inprimatzen ari dituztenak (Monereo, 2016: 927; Pisarello, 2001: 90). Europar Batasuna (EB, aurrerantzean) izango da desdemokratizazio neoliberalaren proiektu honetan demokrazia pribatizatzeke ezinbesteko tresna (Goikoetxea, 2017: 42). EBren egitura instituzionala dela eta, Estatu sozialaren desgitearen mekanismo arautzaile gisa funtzionatuko du, Estatu kideen politikari zati handi bat zuzendaritza oligarkikoaren mende jarri eta Lana Konstituziotik kanporatuz (Chofre, 2016: 567).

### **Teknokratizazio prozesuak**

Neoliberalismoak bultzaturiko prozesu desdemokratikozatzaileak zerikusi estua du paradigma beraren izaera teknokratikoarekin, gizartearen indar transformatzailea eta erabaki ahalmena mugatzeko, politikaren eta erabakien teknifikazioa indartu beharko baitira. Ikuspuntu honen arabera, auzi politiko, sozial edo ekonomikoek, itxuraz apolitikoak diren eta adituek eskaintzen dituzten irtenbide teknikoak beharko dituzte, hurrerapen politiko-ideologikoetatik urrun (Ruipérez, 2003: 139). Hala, ezagutza adituaren, despolutizazioaren eta teknikaren aitzakiapean, neoliberalismoak Estatuaren esku dauden ekonomiaren palanka garrantzitsuenak hauteskunde-prozesuen berezko gorabehera politikoetatik aldentzea bilatuko du, erabaki ekonomikoko zentroak erabaki politikoko zentroetatik urrunduz. Adibide ona izango dugu EK 135. artikularen erreformaren bidez dirua despolutizatzeke apustua (Arjona-Sánchez, 2020: 33).

Logika berri horretatik abiatuta, neoliberalismoak, halabeharrez, gatazkaren beraren ukapena aldarrikatuko du, arazoei parametro politiko edo ideologikoetatik heltzea galaraziz. Konstituzio-

zuzenbidea gatazkaren pentsamendutzat definitu badugu, neoliberalismoak *there is no alternative* delakoa konstituzionalizatzea izango du erdigune, gatazkarekin bukatzean historiaren amaiera burutuko delaren uste osoan (De Cabo, 2016: 21). Izan ere, desdemokratizazio-teknokratizazio prozesuaren azpian datzana, neoliberalismoaren hegemonikotasunaren aldeko aldarria izango da. Proiektu neoliberalak, Estatua eta konstituzio-zuzenbidea arbuizatzetik urrun, konstituzionalismorako joera hartuko du, behar teknikoaren babespean politika — posible dena eta ez dena— estatus ia iraunkorrarekin birdefinituko duen erreforma-agenda mardul bati hasiera emanez (Arjona-Sánchez, 2020: 30).

### Prozesu punitibista

Neoliberalismoak abian jarritako konstituzio-zuzenbidearen elementu sozial eta demokratikoen husteak eta Estatuaren hertsatze funtzioen indartzea txanpon beraren bi aldeak dira (Cámara, 2016: 554). Funtsean, demokraziaren des-substantzializazioak, eskubide sozialak desegitearekin batera, herritartasun-eskubide guztiak zalantzan jartzea dakar, eskubide horien eta sistema demokratikoaren artean interdependentzia logika baitago (Monereo, 2016: 934).

Gerraosteko konstituzionalismo sozialak, eskubide sozial eta demokratikoen hedapena ez ezik, Estatuaren funtzio errepresiboaren nolabaiteko kontrola aldarrikatu zuen, zigor-zuzenbidearen *ultima ratio* izaera edo helburu birsozializatzailea bezalako printzipioak faxismoak praktikaturako totalitarismo penalaren ez-errepikatze berme gisa aurkeztuz. Ordea, politika neoliberalak zorrotzagoak bihurtu ahala, laster ugaritu dira salbuespen-neurriak administrazio- eta zigor-zuzenbidean, eskubide zibil eta politikoen murrizketari ekinez (Pisarello, 2012: 6).

Elementu sozial eta demokratikoen desartikulazioaren markoan sortutako premia sozioekonomikoengatik sortutako arazoei, zigor-sistematik eta espetxe-sistematik emango zaie bide, delituak eta haiei erantsitako zigorrak gogortuz (Larrauri, 2006: 16). Hortaz, aparatu penala arlo sozial eta demokratikoen kontura hedatuko da, ez proiektu neoliberalaren ezarpenaren ondorio huts moduan, baizik eta haren iraupenerako behar sistemiko gisa, desozializazio- eta desdemokratizazio-prozesuak zuzenbide penalaren oinarrien bihurtzea punitibista batekin lagunduz (Antón-Mellón, et al. 2017: 16).

## 4. Ondorioak

Neoliberalismoak mugarik gabeko hedapen-ahalmena azaldu du: Kapitalaren logikak, hertsiki ekonomikoak ez diren eremuak inbaditu eta, gaur egun, ekonomikoki ez ezik, juridikoki eta juridiko-konstituzionaliki ere existitzen dela esan dezakegu. Hartara, mendebaldeko konstituzionalismoaren egungo egoera konplexua da: konstituzio-testu arau-emaileak Estatu sozialaren formari erantzuten dio, bitartean, krisi progresiboan, desagertzen edo eraldatzen ari den arren. Krisi hori pixkanaka konstituzio-azpiko mailako ordena juridikora eramaten ari da, konstituzio-proiektua, proiektu sozial gisa, betetzeari utzi eta kapitalaren logika ekonomikora aldatuz. Ordea, neoliberalismoak, Estatua eta konstituzio-zuzenbidearekin behin betiko bukatzetik urrun, logika propioak esparru biak inbaditzea bilatu du, bere ideologia eta agenda sustatu eta konstituzio-zuzenbidearen munduan agenda horri funtzionalak zaizkion aldaketak lortzeko. Konstituzionalismoaren transformazio prozesu oso honen helburua, azken batean, Estatu neoliberalaren eredu praktikatu daitekeen gizarte-eredu bakarra bihurtzea izango da, paradigmen hegemonikotasuna blindatzea.

Ildo honetan, gero eta zailagoa dirudi, egungo marko konstituzionalean, konstituzionalismoak jasan duen krisiari erantzutea. Halere, neoliberalismoak abiarazitako prozesu desozializatzaile eta desdemokratizatzaileek konstituzio-krisi egoera batean murgildu bagaituzte, konstituzio-zuzenbide eta Estatuaren kategoriak alde batera utzi ezinezko gudu-zelai direla ulertuta, Latinoamerikan haustura agertokiak eta prozesu konstituziogile herrikoiak planteatu dituzte, hain zuzen, elementu demokratiko eta sozializatzaileetan sakontzeko. Hala, erakutsi dute Estatua ez dela gizarte sektore menderatzaileen interesa islatzen duten eta haien boterearen bermerako balio duten tresna hutsa, gizarte-dinamikak, estatu-proiektuak eta sistema politiko osoaren barruko borroken garapena, oreka eta emaitza islatuko dituzten harreman sozialen kondentsazioa baizik, konstituzio-zuzenbidea eraso neoliberalari aurre egiteko balazta eraginkorrena den moduan.

Neoliberalismoak sortutako ondorio desnormatibizatzaileak areagotzen ari diren testuinguru batean ez diote Estatuaren baitako borrokari uko egin, aldiz, konstituzionalismorako hurbilketa berritu bat gauzatu dute, konstituzionalismoa politikoki eta ekonomikoki eusteko, botere-metaketa moteltzeko eta gizarteko kide ahulenen arteko elkartasuna berreraikitzeko tresna gisa ulertuko duena. Horrelako helburu batek, noski, konstituzionalismo sozial tradizionalaren elementu arketipikoen baieztapen defentsibo soiletik harago, indarrean dagoen konstituzionalismo sozialaren elementu eta printzipio batzuk sustatu eta birformulatzera garamatza.

Edonola ere, horrek argitara dakar Estatu eta konstituzio-zuzenbidea Akademia eta gizartetik borrokatu eta bere egin behar ditugun kategoriak direla, indar-korrelazioak kondentsatu egiten dituzten harreman-sozialak izanagatik, kontrahegemonikoki neoliberalismoaren erasoei aurre egiteko borrokaleku utziezin gisa eraikiko direlakoan.

## 5. Etorkizunerako planteatzen den norabidea

Ikerlan honek etorkizunean planteatzen dituen aukerak oso zabalak dira. Ez dugu bistatik galdu behar gure azterketa neoliberalismoak eragin dituen prozesu desozializatzaile, desdemokratizatzaile, teknokratizatzaileak zein punitibistak identifikatzera mugatu dela. Bada, horrek bidean uzten ditu ikerlanean zehar erreferentzia xumeak egin dizkiegun garrantzia goreneko bestelako elementuen azterketak: batetik, Estatuaren barne mailan, Estatu eta Konstituzio sozialaren fundatze-alderdi bat dugun Lana konstituzio-esparrutik kanporatzen duen lan-erreforma, KE 2.2 artikuluko birgizarteratze eta berreziketararen mandatuak desitxuratzen dituzten politika kriminal neoliberalpean sustatutako Zigor-kodearen erreformak edota neoliberalismoaren eraginez Konstituzioak modu espresuan pairatu duen erreformarik sakonena den KE 135. artikulua eraldaketak; bestetik, nazioz gaindiko mailan datzaten botereek sustatutako Estatu-formaren eraldaketak, zehazki, EBren erakundearen analisia, proiektu neoliberalak garatzeko eta demokrazia pribatizatze ezinbestekotzat agertu den makroegitura gisa.

Orobat, Estatu borrokaleku gisa baliatu duten esperientzia konkretuak lantzeko beharra agertzen zaigu ere: Latinoamerikan konstituzio-paradigma berri bati eman diote bide, prozesu teknokratizatzaile, desdemokratizatzaile zein desozializatzaileak bihurtzeko. Neoliberalismoak hegemonikoki aitzina egiteko konstituzio-zuzenbidearen muinean dagoen izaera dialektikoa ukatzen badu, Latinoamerikan konstituzio-zuzenbidea eraso neoliberalari aurre egiteko balazta gisa erabili dute, gatazkaren kategoria berpiztu eta erdigunera ekarriz. Hain zuzen, globalizazio neoliberalaren testuinguruan konstituzio-zuzenbideak bizi dituen eraldaketei heltzeko, historikoki konstituzionalismoaren oinarritzko kategoriak izan diren horien jadanekotasuna berrikusi eta birkontzeptualizatu egin dituzte, errealitate konstituzionala ikuspegi formaletik haratago irakurriz; alegia, subiranotasuna, demokrazia, prozesu-konstituziogilea, Estatu-eredua, edota Konstituzioen fundazioan dagoen subjektu historikoa bezalako kategoriak birpolitizatuz.

## 6. Erreferentziak

- Antón-Mellón, J. A., Álvarez, G. eta Rothstein, P. A. (2017) Populismo punitivo en España (1995-2015): presión mediática y reformas legislativas. *Revista Española de Ciencia Política*, 43, 13-36.
- Arjona Sánchez, M. J. Las características del constitucionalismo neoliberal. In Pérez Miras, A.; Teruel Lozano, G. M.; Raffiotta, E. (zuz.), *Setenta años de Constitución Italiana y cuarenta años de Constitución Española*, Pia Iadicco, M; 5, 25-40.
- Bell, D.; Revel, J.; Fukuyama, F. (1993) *¿Ideologías sin futuro?, ¿futuro sin ideologías? conferencias y debate de Daniel Bell, Francis Fukuyama y Jean François Revel*, Madrid, 10 de diciembre de 1991, Universidad Complutense de Madrid, Editorial Complutense, Madril.
- Cabo Martín, C. de (2012) Propuesta para un constitucionalismo crítico. *Revista de derecho constitucional europeo*, 19, 387-399.
- , (2016) Propuesta para un constitucionalismo crítico. In García Herrera, M. A.; Asensi Sabater, J. eta Balaguer Callejón, F (koord.), *Constitucionalismo crítico: Liber amicorum Carlos de Cabo Martín*. Tirant lo Blanch, Valentzia, 18-29.
- Cámara Villar, G. (2016) Crisis económica y constitución. El caso de España. In García Herrera, M. A.; Asensi Sabater, J. eta Balaguer Callejón, F (koord.), *Constitucionalismo crítico: Liber amicorum Carlos de Cabo Martín*. Tirant lo Blanch, Valentzia, 541-557.



- Chofre Sirvent, J. (2016) La Unión Europea ante la crisis económica: el “estado de excepción” como un nuevo paradigma. In García Herrera, M. A.; Asensi Sabater, J. eta Balaguer Callejón, F (koord.), *Constitucionalismo crítico: Liber amicorum Carlos de Cabo Martín*. Tirant lo Blanch, Valentzia, 592-625.
- Goikoetxea, J. (2017) *Demokraziaren pribatizazioa*. Elkar, Donostia.
- Hobsbawm, E. (1998) *Historia del siglo XX*. Crítica, Buenos Aires.
- Jessop, R. (1999) *Crisis del Estado de Bienestar. Hacia una nueva teoría del Estado y sus consecuencias sociales*. Siglo del Hombre, Bogotá.
- , (2007) *State Power*. Polity Press, Cambridge
- , (2008) *El futuro del Estado capitalista*. Catarata, Madril.
- , (2014) *Towards A Cultural Political Economy. Putting Culture in its Place in Political Economy*, Edward Elgar, Cheltenham.
- , (2017) *El Estado. Pasado, presente y futuro*. Los Libros de la Catarata, Madrid.
- Larrauri Pijoan, E. (2007) Populismo punitivo... . *Juezas y jueces para la Democracia*, 55, 15-22.
- López Ruiz, F. (2017) Notas sobre la globalización financiera y su impacto en el estado de derecho. *RDUNED. Revista de derecho UNED*, 20, 169-206.
- Maestro Buelga, G. (2017). El Estado Social 40 años después: la desconstitucionalización del programa constitucional. *Revista de derecho político*, 100, 769-798.
- Martínez Sierra, J. M. eta Ferrer Martín de Vidales, C. (2016) La nueva gobernanza económica de la UE contra el principio democrático y el estado social. In García Herrera, M. A.; Asensi Sabater, J. eta Balaguer Callejón, F (koord.), *Constitucionalismo crítico: Liber amicorum Carlos de Cabo Martín*. Tirant lo Blanch, Valentzia, 557-592.
- Monedero, J. C. (2012) El programa de máximos del neoliberalismo: Informe a la Trilateral de 1975. *Sociología Histórica: Revista de investigación acerca de la dimensión histórica de los fenómenos sociales*, 1, 289-310.
- , (2018) El Estado, Globalización y Democracia. Juan Carlos Monedero en Universidad Nacional de Quilmes [online bideoa] eskuragarri <https://www.youtube.com/watch?v=3OIQLp-iETM> [Azken kontsulta: 2021ko urtarrilaren 20a]
- Monereo Pérez, J. L. (2016) El constitucionalismo social europeo ante los nuevos poderes soberanos. In García Herrera, M. A.; Asensi Sabater, J. eta Balaguer Callejón, F (koord.), *Constitucionalismo crítico: Liber amicorum Carlos de Cabo Martín*. Tirant lo Blanch, Valentzia, 927-968.
- Offe, C. (1990) *Algunas contradicciones del Estado de Bienestar*. Alianza, Madril.
- Petras, J.F. (2001) Notas para comprender la política revolucionaria hoy. *Filosofía, política y economía en el Laberinto*, 6, 22-42.
- , (2012) El estado de bienestar occidental: su aparición y la desaparición del bloque soviético. *Rebelión*, 1-13.
- Pisarello Prados, G. (2001) Del estado social legislativo al estado social constitucional: por una protección compleja de los derechos sociales. *Revista de teoría y filosofía del derecho*, 15, 81-107.
- , (2012) El constitucionalismo social ante la crisis: entre la agonía y la refundación republicano-democrática. *Revista Derecho del Estado*, 28, 55-75.
- Poulantzas, N. (1970) Marx y el Derecho moderno. *Derecho PUCP*, 28, 78-90.
- Ruipérez Alamillo, J. (2003) ¿La Constitución en crisis?: el Estado Constitucional democrático y social en los tiempos del neoliberalismo tecnocrático. *Revista de estudios políticos*, 120, 127-172.
- Ruiz Sanjuán, C. (2016). *La (des)regulación política de la economía de mercado: Del liberalismo económico al neoliberalismo*. MI: Michigan Publishing, University of Michigan Library.
- Sandel, M. J. (2012) *Lo que el dinero no puede comprar. Los límites del mercado*, Debate, Madril.
- Soriano Moreno, S. (2016) Contradicción y conflicto como supuesto constitucional. In García Herrera, M. A.; Asensi Sabater, J. eta Balaguer Callejón, F (koord.), *Constitucionalismo crítico: Liber amicorum Carlos de Cabo Martín*. Tirant lo Blanch, Valentzia, 442-464.

## 7. Eskerrak eta oharrak

Ikerketa lan hau Master Amaierako Lan baten baitan garaturiko lana da eta, beraz, doazkiola gure eskerrik beroenak lan honen zuzendari izan dugun Eneko Compains Silviri.